

Egutegiari Saria eman diote

ARANTZAZUKO

ANDRE MARIAREN

EGUTEGIA
1997



1947 - 1997

51 urtez zure etxean

guztietako eukarazko edizioen artean zabalkunderik handiena izan dutenak (takoa izan gabe, Iparraldeko Seaska-ren pareta-egutegiak 35.000 saltzen ditu).

Gerrarean egutegi-takoren bat 10.000 aleko edizioak egitera iritsi baldin bazen, gaur egun ez du horrek behera egin, eta ziurtasun osoz esan daiteke 1997 honetan 40.000 egutegi-tako salduzabalduko direla Euskal Herri osoan. Lau egutegi-tako dira bizirik daudenak: hiru Hegoaldean eta bat Iparraldean. Ez gaude, beraz, bitxikeria galdu baten aurrean.

Hamabi-hamalau egutegi-tako agertu dira Euskal Herrian, S. Arana-Goiri-k lehenengo atera zuenetik (1898) gaugaino, batzuk bizitza laburrekoak, baina luzaro iraun duenik ere franko da. Gerrarean, azken hauen artean dago I. López-Mendizabal-ek urteoro atera ohi zuena (Tolosa, 1910-1936).

Hain zuzen, hauxe izan zen Aita J. A. Garate-k gertutik ezagututakoa. Berorren arrakasta ezagunak izan zuen eraginik Garateren lehen orduko lanean (Tolosatik Tolosarako eragina, alegia).

Mende-erdi bat bete duela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak saritu berria du *Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*: Abbadia Saria eman dio, euskararen normal-kuntzaren alde burutu duen lan luze eta zabalagatik.

Zorionak ematearekin batera, Egutegi hori bere lekuan jarri nahiko nuke hemen, izan ditugun gainerako euskal almanaka, egutegi eta urtekarien artean. Honelako asko izan da euskal argitalpenen artean, eta zalantzarik gabe, egutegiok izan dira mota

Bestalde, frantziskotarren artean egutegiaren asmoa ez zen batere arrotza, Aita I. Omaetxebarriak 1936an "Andre Mariarekin Eleizegutegian zear" argitara eman zuenetik. Takoa izan gabe, egutegi txukun eta egokia zen hau. Gero, batez ere Garate eta

lagunen egosgogorkeria temosoari zor diogu gainerakoa.

Guzti horien aurretik, euskal egutegi eta almanaken historia jarraitua 1848an hasi zen, bizialdi luzea izandako *Eskualdun laborarien adiskidea* zeritzanarekin (1848-1914). Hala ere, egutegi-takoena beranduagokoa

Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia da, bete dituen urteekin, euskarazko egutegi-takoetan biziadirik luzeena izan duena. Eta, zalantzarik gabe, ale gehien zabaldua: zuhurtasunez joanda (eta datu estatistiko berrien bidez berresteko, betiere), pentsa liteke 1.000.000ren bat ale saldu direla sortu zenetik.



Hona egutegia idazten eta zabaltzen gaur egun jarduten diren Anaia batzuk, ezkerretik eskubira: Patxi Agirre, Julian Alustiza, Yon Zubieta, Jose Luis Zurutuza zuzendaria, Luis Esnal eta Jose Maria Zelai.

izan zen (1909), A, Campion eta Gregorio Mujikak gidaturiko Euskal-Esnalea Elkarteak berea atera zueneko.

Hurrengo urtetik aurrera I. López-Mendizabal izan zen honelako argitalpenen argitaratzaile finena, ahalegin hura gerrak eten arazi zuen arte. Donostiako Julio Urkixo Liburutegian ikus liteke bilduma horren lagin aski zabala.

Saria ongi irabazita dauka, ba. Orain, etorkizuna ere irabaztea dagokio, eta horixe opa diogu, bihotzez: bere nortasunari eutsiz, eta bere burua biziberrituz eta hobetuz iraun dezala, euskaldun guztion zerbitzuen.

JOSEBA INTXAUSTI